



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

337-ZEH-2019 LEA/AVC espedientea

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	1
II. SALATUTAKO ERAKUNDEA.....	4
III. EGITATEAK	4
IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	10
1. Administrazio Publikoa eta lehiaren araudira atxiki beharra.....	11
2. Jokabideen azterketa	13
a. Debako hilerri berrirako ideia-lehiaketa (1996)	13
b. Eraikuntza-proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzeko kontratua (1997)	14
c. Hilerriaren kokapen berri baterako azterketa teknikoaren kontratua (2015)	14
d. Hilerri berriaren oinarritzko proiektua eta egikaritzea idazteko proiektua (2018)	15
e. Agirre jauregiko obrekin lotura duten proiektua eta zuzendaritza fakultatiboa (2006)	17
3. Ondorioa	18
4. Ebazpena emateko eskumena duen organoa.....	18
V. EBAZTEN DU	18

Bertaratuak:

Lehendakaria: Alba Urresola Clavero andrea
Bokala: Rafael Iturriaga Nieva jauna
Bokala: Enara Venturini Álvarez andrea
Idazkaria: Ainara Herce San Martín andrea

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), 2020ko martxoaren 30eko bilkuran, goian adierazitakoek parte hartuta, ebazpen hau eman du 337-ZEH-2019 zenbakiko espedientean, Debako hilerriari buruzkoa bera.

I. AURREKARIAK

1. 2019ko martxoaren 28ko datarekin, XXX jaunak aurkeztutako idazki bat sartu zen Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) erregistroan. Esandako idazkiaren



bitartez, lehiaren defentsaren arloko balizko praktika debekatuak salatu zituen, Debako Udalak aurrera eramandako kontratazio batzuk zirela eta; izan ere, oinarritzko bi proiektu eta egikaritze-proiektu bat kontratatu zituen Debako udalerrian hilerri berri bat eraikitzeo, bai eta berorren bideragarritasun ekonomikoari buruzko proiektu bat ere¹.

Aipatutako praktiken ondorioz, beharrezkoak ziren kautelazko neurriak har zitzaten eskatu zien erakunde judizial eskudunei, Udala eta proiektua eraikitzeo lanak esleituta dituzten enpresak jakinaren gainean jarri, eta proiektua materialki egikaritzea eragozteko, harik eta LEA/AVCk dagokion ebazpena eman arte.

2019ko apirilaren 3an, salatzaileak 2018ko abenduaren 11ko Hirigintza Batzordearen aktaren kopia igorri zuen, posta elektronikoko bidez, LEA/AVCra, administrazio-espeditera gehitu zedin.

2. Ikerketa Zuzendaritzak (IZ) erreserbatutako informazioaren aldia hasi zuen 2019ko ekainaren 7an, salatzaileak adierazitako gertakariak egiaztatu, eta hala balegokio, sakonago aztertzeo, bai eta Lehia Defendatzeko Legea urratzeak eragindako zehapen-prozedurari hasiera ematea justifikatzen duten gertaerak biltzen diren ala ez aurretiaz zehazteko ere.
3. Erreserbatutako informazioan, IZk honako informazio eta/edo dokumentazio hau eskatu zion Udalari, 2019ko ekainaren 7an:
 - Deban hilerri berri bat eraikitzeo ideia-lehiaketarako deialdiaren kopia; bai eta zein arkitekto gonbidatu ziren eta zer baldintzatan ere. (1996).
 - Debako hilerri berriaren oinarritzko proiektuaren idazketa eta egikaritzea XXX arkitektoari esleitzen dion kontratazio-espediterearen kopia, bai eta aipatutako proiektuaren memoria ere, zeina Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak ikus-onetsi baitzuen 2003an.
 - Kontratazio-espediterearen kopia, zeinaren bidez XXX esleitu zaion Artzabalen egitekoa den Debako hilerri berriaren oinarritzko proiektuaren idazketa eta egikaritzea.
 - Debako Udalak ekar lezakeen edozein informazio, salaketaren xede izan diren egitateak argitzeo balio lezakeen neurrian.

Udalak 2019ko uztailaren 2an erantzun zion egindako informazio-eskaerari.

Halaber, IZk informazioa eta dokumentazioa eskatu zituen Udalak, 2015ean, hilerriaren beste kokapen bati buruzko txosten bat enkargatu izanaren gainean. Eskakizun horri 2019ko urriaren 14an eta 15ean erantzun zitzaion.

¹ Salaketarekin batera, ondorengo dokumentu hauek atxiki dira: I) Lehiaketan parte hartzeo gonbidapena II) Ideia-lehiaketaren ebazpena III) Egikaritze-proiektua IV) Kontratatzeko premia V) Aurrekariak VI) Kontratazio publikoa Euskadin.



4. 2019ko irailaren 11n, IZk hautemandako jokabideak azaltzeko ohar laburra igorri zion Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko (MLBN) Lehiaren Zuzendaritzari, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2.1 artikuluan aurreikusiarekin bat etorritik, eta LEAk jokabideak aztertzeko eskumena zuela adierazi zuen ohar hartan.

2019ko urriaren 1ean, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, jasotako proposamenari jarraikiz, gertaera jakin horiek aztertu eta ebazteko eskumena LEAri zegokiola iritzi izan zion.

5. 2019ko azaroaren 13an, IZk, berriro, informazioa eta dokumentazioa eskatu zizkion Udalari. Aipatutako eskabidearen bitartez, dokumentazio osagarria eskatu zitzaion Udalari, jada aurkeztuta zuenaz gainera, bai eta kontratuak esleitu dizkien arkitektoen edo arkitektura-estudioen erlazioa eta 2000tik 2019ra artean arkitektura-zerbitzuetan egindako enkarguen zerrenda ere.

Esandako informazio-eskabideari egun hauetan erantzun zitzaion: 2019ko abenduaren 19an, 2020ko urtarrilaren 14an eta 2020ko otsailaren 7an. Azken erantzunean, udal idazkariak hau adierazi zuen:

«(...) 2015 urtera arte, eskatutako datu guztiak eman dizkio Udalak LEAri. Geroztik, denbora tarte bat dago non ez dagoen jasota arkitektura-zerbitzuekin lotutako enkargu berririk, 2007. urtera iritsi arte. 2007tik, denboran atzera eginez, hainbat informazio biltzeko modua izan dugu: zer espediente izapidetu ziren, kontratuen xedea zein izan zen, bai eta esleipenduna nor izan zen ere. Hala eta guztiz ere, horietan guztietan – 2007tik atzerakoetan– ez gara gauza izan eskatutako informazioa eskuratzeko. Beraz, bete gabe agertzen diren koadroen arrazoa izan da, hain zuzen ere, ez dugula aipatutako informazio hori eskuratzeko modurik, edo, behintzat, ez garela aurkitzeko kapaz izan».

6. 2020ko urtarrilaren 2an eta 3an, salatzaileak zabaldu egin zuen salaketa. Salaketaren zabaltze horretan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) 2011ko martxoaren 17an emandako Erabakia aipatu zuen, zeinak behin betiko onartzen baitzuen Debako Udalaren eta haren tokiko erakunde autonomoen 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazio-txostena.

Salatzaileak eskatu zuen erantsi zedila Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren erabaki hori LEA/AVCren espedientera, HKEEren ondorengo iritzi hau eta Udalaren erantzuna kontuan har zitezten:

«Udalak hirigintzaren arloan aholkularitza emateko administrazio-kontratu bat sinatu zuen arkitekto batekin, 2006ko ekitaldian. Horrez gainera, eta aurreko kontratuan aurreikusita egon gabe, arkitektoak Agirre jauregiko obrekin lotura duten proiektuak elaboratzeko eta zuzendaritza fakultatiboa egiteko gastuak fakturatu ditu, APKLTBn edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean (aurrerantzean, SPKL) ezarritako



prozeduretatik kanpo, 93, 42 eta 74 mila eurokoak 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietan, hurrenez hurren»,

HKEEk emandako iritzi horri dagokionez, Udalak honako hau adierazi zuen:

«– Aholkularitza-kontratua arkitektoarekin:

Agirre jauregia: zenbatekoak:

– 2007: 93.000 euro.

– 2008: 42.000 euro.

– 2009: 74.000 euro.

Udal-arkitekto aholkulariak Agirre jauregiarekin zerikusia zuten proiektuei eta zuzendaritza fakultatiboari buruz egindako fakturazioari dagokienez, esan behar da, 2006ko maiatzean, Udalak eta birgaitze-lanak zuzentzen zituzten arkitektoek kontratua deuseztatu zutela, bi aldean adostasunez. Gerora, eta foru-aldundiko Kultura Departamentuak proposatuta, proiektuaren azterketa bat eta konponbide-proposamen bat eskatu zitzaizkion udal-arkitekto aholkulariari, katalogatutako eraikinen birgaitze- eta berreraikitze-lanetan esperientzia luzea baitzuen, eta foru-aldundiak onartu egin zuen. Udal-arkitekto aholkulariak idatzitako proiektuak (2007ko irailaren 19an ikus-onetsi zuen EHAEOK) honako hau adierazten du, hitzez hitz: «Aurreko arkitektoek garatutako proiektuaren jarraipena da, eta aurrez izapidetutako udal-onarpen berbera du». Edozein moduz ere, EHAEOK ezarritako tarifak aplikatu ziren.

7. 2020ko otsailaren 21ean, IZk zehapen-prozedurari hasiera ez emateko eta informazio erreserbatuaren esparruan egindako eta izapidetutako jarduketak artxibatzeke ebazpen-proposamena igorri zion Lehiaren Euskal Kontseilu (LEK) honi, ez baitu ondorioztatzen, izan ere, lehiaren defentsaren arloko araudia urratu zelako zantzurik dagoenik.

II. SALATUTAKO ERAKUNDEA

8. DEBAKO UDALA (IFZ: P2003000C; helbidea: Portu kalea 1, Deba, PK: 20820).

III. EGITATEAK

9. 1994ko azaroan, GAIN, Urbanismo e Ingenieria Civil SA enpresak, Udalaren enkarguz, Debako hilerri berria kokatzeko bost aukera kontuan hartzen zituen azterlan bat egin zuen.
10. 1996. urtean, Udalak ideia-lehiaketa baterako deialdia egin zuen, udal-hilerri berri baten proiektuaren idazketa egiteko xedearekin. Ideia-lehiaketaren deialdian aurreikusita zegoen ondorenean Debako hilerri berriaren oinarrizko proiektua idazteko eta egikaritzeko kontratua esleitzea.



Udala bi aukeraren artean zegoen: hilerri berri bat eraiki edo lehendik Arrillagan dagoena handitu. Lehiaketan parte hartzen zutenek bi aukeretako batekin –edo biekin– lotura zuten ideiak aurkeztu behar zituzten.

Berria eraikitzea hautatuko balitz, hilerriaren tipologia honelakoa izan behar zukeen: hobiratzeak panteoietan eginda, eta ahalik eta landare-azalera handienarekin, parke modura.

- 11.** Udalak hainbat profesional² gonbidatu zituen aipatutako ideia-lehiaketan parte har zezaten eta, aurkeztu zirenen artean, hurrengo profesional hauek aurkeztutako ideiak geratu ziren finalista:

- XXX jauna
- GAIN eta XXX
- XXX eta XXX.

- 12.** Gobernu Batzordeak 1997ko otsailaren 6ko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez, ideia-lehiaketaren irabazle XXX arkitektoaren proiektua izendatzea erabaki zuen Udalak. Era berean, lehiaketan parte hartu arren hautatuak izan ez ziren parte-hartzaileei zegokienez, bakoitzari 125.000 pezeta ordaintzeko erabakia hartu zen. Azkenik, parte-hartzaile guztiei opari bana emateko akordioa hartu zen, lehiaketan parte hartzeagatik eta egindako lanengatik esker ona adierazteko.

Bilkura berean, Gobernu Batzordeak erabaki zuen arkitekto beraren esku uztea hilerri berria eraikitzeko bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlan bat idazteko lana. Kontratuaren zenbatekoa 810.000 pezetakoa izan zen (BEZa barne).

- 13.** 1998ko urriaren 9an, Udalak, Gobernu Batzordearen erabakiaren bitartez, Istiñan hilerri berri bat eraikitzeko oinarrizko proiektua idazteko eta egikaritzeko ideia-lehiaketaren irabazleari esleitzea erabaki zuen. 7.284.680 pezetako zenbatekoa zuen (BEZa barne).

- 14.** 1998an, Debako Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala jarri zuen Udalak abian, hain zuzen ere, Istiñako hilerri berria jasota gera zedin udal-plangintzan eta sistema orokor gisa.

Aipatutako aldaketa hori behin betiko onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), 1999ko abenduaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez. Onartutako aldaketan, komunitate-ekipamenduko sistema orokor bat definitu zen: hilerri berri bat lurzoru urbanizaezinean, Istiña aldean.

² XXX, YYY, RRR; TTT; XXX; ZZZ eta Gain.



15. XXX jaunak berraztertze-errekurtsoa jarri zuen Arau Subsidiarioen aldaketa puntual hori behin betiko onartzen zuen GFaren erabakiaren aurka, baina errekurtsoari ezezkoa eman zitzaion 2000ko uztailaren 18an, GFAko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz. Erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen errekurtsogileak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko (EAEAN) Administrazioarekiko Auzien Salan, eta uztailaren 23ko 750/2002 Epaiak aintzat hartu zuen errekurtsoa. Horrela, baliogabetuta geratu zen 1999ko abenduaren 21eko Arau Subsidiarioen aldaketa, komunitate-ekipamenduko sistema orokor bat definitzen zuena: hilerri berri bat lurzoru urbanizaezinean (Istiña aldean).
16. 2002. urtean, Udalak Arau Subsidiarioen berrikuspenari ekin zion. Berrikuspen hark hilerri berri bat jasotzen zuen, Artzabalen, 8. Sistema Orokor gisa (8. SO).
17. 2003an, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak (EHAEO) Debako hilerri berriaren oinarrizko proiektua eta egikaritzea ikus-onetsi zituen. Biak ala biak 1996ko ideia-lehiaketaren irabazleak idatzi zituen, zeinak esleituta baitzeukan kontratua 1998an.
18. 2007ko urriaren 16an, GFAk behin betiko onartu zuen Debako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina (2007ko Arau Subsidiarioen TB), eta onarpen-erabakia 2007ko abenduaren 17an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
19. 8. SO. DEBAKO HILERRIA, DEBA EREMUARI dagokion HIRIGINTZA-FITXA honako hau da:
 - «1. HIRIGINTZA-INFORMAZIOA. AURREKARIAK.
 - 1.1. HIRI-EGITURA,
Deba hiriguneko hilerria.
8.0.9.rekin batera (Itziarko hilerria), lurraldearen egitura organikoa konfiguratzeko duen elementu modura eratzen da.
 - 1.2. ESPARRUAREN AZALERA. 11.603 m²
 2. HIRIGINTZA-ARAUBIDEA.
 - 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA: Urbanizaezina
 - 2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA: Zerbitzu publikoen komunitate-ekipamendurako gunea (11:G8 artikulua)
 - 2.3. EREMUEN MUGAKETA: Hilerri guztiak batasun morfologiko bat osatzen du, eta, hortaz, eremu bakarra da
3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.
Hirigunearen barruan geratu den Amillagako hilerri zaharra lekualdatzeko aukera posible egitea zenbait araudi sektorial betetzea lortzeko, hala nola, Hileta Poliziari buruzkoa edota



Irisgarritasun Legea. Hilerria zedarriztat hartzea bai lurraldean eta bai udal-antolamenduan, eta lursailera egokitzea hilerrri irekiaren irizpideak errespetatuz; hau da, «lorategi» edo «parke» gisa.

3.1. KALIFIKAZIO XEHATUA.

Orientazio gisa.

Bideak eta aparkalekuak 451 m²

Programatutako eraikuntza 1.460 m²

Hobiratze-lorategia 3.731 m²

Berdegunea 4.600 m²

Sarbidea eta oinezkoen ibilbideak 352 m²

Joan-etorrien bizikidetzako sarbidea 378 m²

3.2. ORDENANTZA XEHATUAK.

Hileta Poliziaren Legeari, urriaren 19ko 202/2004 Dekretuari eta azken honen Eranskinari buruzkoak (2004ko azaroaren 18ko EHAA).

3.3. APROBETXAMENDU-, ERAIKUNTZA-, JABETZA- ETA ERABILERA-BALDINTZAK.

Aprobetxamendua. Ekipamendua.

Eraikuntza. Berria: Arkitektura-proiektuaren beharizanen arabera.

Jabaria. Publikoa.

Erabilera. Hileta Poliziaren Legearen, urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren eta azken honen Eranskinaren arabera (2004ko azaroaren 18ko EHAA). (.....)

3.4. EKIPAMENDU-, URBANIZAZIO- ETA KUDEAKETA-BALDINTZAK.

Kasuan kasuko obra-proiektuen arabera. Handitzeen kasuan, behar diren lursailak Desjabetzeko Sistema. Egin beharreko handitzea egiteko eremu mugakideak gehitzeak ez du ekarriko aldaketarik plangintzan, ezta lurzorua berriro sailkatu beharrik ere.

Antolatutako esparruaren barruan ur-ibilgurik ez dagoen arren, proiektu teknikoak eta lanen garapenak luraren iragazgaitasuna eta lixibatuen kontrola bermatu beharko dute, honako irizpide hauetan oinarrituta:

Luraren iragazgaitasuna arrazoi hauengatik:

Egon litezkeen eragin posibleak saihesteko, proiektuak lursailean hesi iragazgaitza sortzea proposatuko du, lurzorua eta lurpeko uren babesa ziurtatuko duten balizko iragazketak eragozteko.

Aipatutako hesi iragazgaitzak Eusko Jaurlaritzak material inerteak eta inertizatuak kudeatzeko ezarritako eskakizunak bete beharko ditu (Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuaren 6. artikulua eta aipatutako sail bereko sailburuaren 1995eko otsailaren 15ekoa agindua); izan ere, araudi horrek adierazten du 10-5 m/s eta 10 m/s bitarteko iragazkortasun-balioak daudenean, beharrezkoa izango dela lursaila iragazgaitzea edo behar bezala egokitzea, lursailaren iragazkortasuna 10-7 m/s-tik behera murrizteko xedez. Halaber, Europako Araudiak ezarritako baldintzak ere bete beharko ditu.



Araudi hori 1996ko otsailean argitaratu zen Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean. Berorretan, gainera, hondakin inerteen zabortegietan 10-7 m/s-ko edo gutxiagoko iragazkortasun-koefizientea eskatzen da, metro beteko lodieran. (...).»

- 20.** 2007ko Arau Subsidiarioen TBren behin betiko onarpen-erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen EAEko Justizia Auzitegi Nagusian. Errekurtsogileak adierazi zuenez, 2007ko Arau Subsidiarioen TBko 8. Sistema Orokorra 1999ko abenduaren 21eko Arau Subsidiarioen Aldaketak bere garaian aurreikusitako azalera-esparru berean zegoen, aldaketa hura Salaren 750/2002 epaiak baliogabetu bazuen ere. Errekurtsogileak 2007ko Arau Subsidiarioen TB baliogabetzea eskatzen zuen, 8. SOren (Artzabalgo hilerri berria) definizioari dagokionez.

EAEJANek 21/2010 epaia eman zuen, urtarrilaren 18an. Epai horretan ezezkoa eman zion aipatutako errekurtsoari eta zuzenbidearekin bat zetorrela adierazi zuen errekurritutako Arau Subsidiarioen berrikuspena, Debako hirigintza-plangintzan hilerri berria 8. SO gisa definitzeari dagokionez.

EAEJANek emandako epai horren aurka kasazio-errekurtsoa jarri zen Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan, eta hark 2012ko maiatzaren 31n emandako epaian, kasazio-errekurtsoa jartzeko aukerarik ez zegoela ebatzi zuen.

- 21.** Udalak ez zituen burura eraman 2003an ikus-onetsitako hilerri berriaren oinarrizko proiektua eta egikaritzea.
- 22.** 2015ean, Udalak txosten bat enkargatu zion XXX arkitektoari Debako hilerriak izan zezakeen kokapen berri bati buruz. Enkargu horren zenbatekoa 2.400 eurokoa izan zen (BEZ gabe).
- 23.** Udalak, udal-arkitektoak erretiroa hartu zuenez, hirigintza-aholkularitzako kontratua lizitatu zuen publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez. Udalak, honako hauek gonbidatu zituen esandako lizitazioan parte har zezaten: XXX, Toledo Taldea, YYY eta ZZZ. 2015eko abenduan, aipatutako kontratua YYY esleitu zitzaion.
- 24.** 2017an, hilerri berriari buruzko erakusketa publiko bati hasiera eman zion Udalak³. Horretarako, aurkezpen bat egin zuen 2017ko uztailaren 19an. Haren iragarpena egitean, Udalak honako hau adierazi zuen:

³ DEBAKO UDALA. https://www.deba.eus/eu/aktualitatea/albisteak/udalak-hilerri-berriaren-proiektua-aurkeztuko-du-jendaurrean?set_language=eu.



«Hilerriarentzat kokapen berria bilatzeko beharraz asko hitz egin da aspaldi honetan eta denborak aurrera egin duen heinean hainbat aldaketa egon dira gai honen inguruan (kokagunea, tamaina...)

Amillagako garapen urbanistikoa dela eta, ezinezkoa da hilerriaren egungo kokalekua mantentzea. Horregatik, Udalak oraingo beharretara egokitzen den proiektu bat prestatu behar izan du, hobiratzeei eta hilerriak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez.

1993. urtean Debako hilerriari kokaleku berria bilatzeko azterketa egin zuten eta aurkezpen honetan hilerriak ordutik hona ekarri dituen arazoan eboluzioa aztertuko da. Horren ondoren, proiektu berria uda-plangintzan nola sartu den, egungo kokapenaren arazoak zeintzuk diren, honek izan duen bilakaera eta azken 15 urteetan izandako aldaketak azalduko dituzte; aurkezpena proposamen berri honen azalpenekin bukatuz.

Proposamen berri honek hilerriko hobiratzeak egungo egoera eta beharretara egokitzea bilatzen du, bai eta eskaintzen dituen zerbitzuak oraingo beharretara egokitzea (horma-hilobiak, kolunbarioak...) edota agur edo oroimen esparruak sortzea ere. (...).»

- 25.** 2018ko martxoaren 8an, Udalak, 31/2018 Alkatetza Dekretuaren bidez, XXX arkitektoari enkargatu zion 2018ko proiektua idatzi zezan Artzabalen eraikitzeko⁴. Esandako Dekretuak egun Arrillagan dagoen Debako hilerriaren kokalekua aldatu beharra adierazten zuen, eta kontratu txikiaren definizioa eman zion, 18.000 euroko zenbatekoarekin (BEZik gabe).

Udalak XXX arkitektoak aurkeztutako eskaintza kontuan hartuta zehaztu zuen kontratuaren zenbatekoa. Eskaintako zerbitzuaren xedea Debako hilerri berriaren oinarritzko proiektua idaztea eta egikaritzea zen, Artzabalen, eta eskaintza ekonomikoa 18.000 eurokoa izan zen.

Proiektua urte bereko maiatzaren 9an ikus-onetsi zuen EHAEOK eta 2018ko maiatzaren 22an aurkeztu zuen Udalak.

- 26.** Udalak 2019an lizitatu zituen, prozedura ireki sinplifikatuaren bitartez, Debako hilerri berria eraikitzeko lanak. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 1.773.738,74 eurokoa izan da.
- 27.** 2000. urtetik 2019ra bitartean, Debako Udalak 37 kontratu esleitu ditu arkitektura-zerbitzuen alorrean; horietatik 11 XXX arkitektoari edo haren arkitektura-estudioari (XXX Arkitektoak SLPri⁵) esleitu zaizkio, Udalak LEA/AVC honi helarazi dizkion datuen arabera.

⁴ Artzabalgo esparrua 8. Sistema Orokor gisa –«Istiñako hilerria»– identifikatzen da udal-plangintzan.

⁵ Horietatik bitan, Udalak prozedura irekiaren bidez esleitu du kontratua, batean publizitaterik gabeko prozedura negoziatuari jarraikiz eta bostetan kontratu txiki gisa. Hiru kontraturen kasuan, Udalak ez dio jakitera eman LEA/AVCri zer prozedura jarraitu duen kontratu horien esleipena egiteko, ez baitu informazio hori eskura gaur egun.



IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- 28.** Salatzaileak lehiaren defentsarako araudiaren ustezko urraketa baten berri eman dio LEA/AVCri; urraketa hori lehia *de facto* ezabatzea izan dela salatu du, eta zuzenean kontratu publikoak esleitu zaizkiola XXX arkitektoari edota XXX Arkitektoak SLP izeneko haren enpresari.

Beraz, ondorioztatzen da Udalaren eta XXX arkitektoaren edo haren enpresa XXX Arkitektoak SLP enpresaren arteko kolusio-akordio bat salatzen dela.

- 29.** Salatzaileak alderatu eta parekatu egiten ditu, batetik, administrazio publikoen kontratuen araudia urratu izana eta, bestetik, lehia babesteko araudian izandako urraketak.

- 30.** Hala ere, parekatze hori ez dago termino absolutuetan egiterik; Kontratuen Legearen aurkako jokabideak LDLn debekatutako jokabideren baten esparruan koka daitezkeen kasuan soilik egin daiteke hori.

- 31.** Planteatutako kasuan, frogatutako egitateetan Udalaren eta kontratuen esleipenduna izan den profesionalaren artean kolusio-akordiorik dagoen edo ez aztertu behar da, hori baita LDLko 1. artikulua galarazten duena.

- 32.** LDLren 1.1. artikulua debekatu egiten du taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, baldin eta horien helburua merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada.

LDLren 1. artikulua aplikazioak, horrenbestez, eragile ekonomiko ezberdinen arteko borondate-kontzertu bat izatea eskatzen du. Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak 2007ko ekainaren 19 emandako Epaia, 3. zuzenbide-oinarrian honako hau ezartzen du:

«(...) zeren eta, jakina den bezala, manu hori soilik aplikatu dakieke alde biko edo alde anitzeko akordioei, baina ez, edozein dela ere haien legezko edo formazko izena, subjektu bakar batek hartzen dituen erabakiei, aztertutako kasuan gertatzen den bezala, eta, nolahi ere, erabaki horiek borondate pluralen eta independenteen hitzarmen batetik etortzea eskatu beharko da. Alde horretatik, auzitegi honek behin eta berriz mantendu izan ditu adierazitako aniztasun- eta independentzia-irizpideak, eta ukatu ere egin dio talde ekonomiko bereko enpresek sinatutako itunari akordioaren kalifikazioa (90.11.19ko eta 97.05.22ko ebazpenak [AC 1997, 1214] (...)).»

- 33.** Horretarako, Udalak eragile ekonomikoaren kategoria eduki beharko luke, eta ez ahalmen publikoak erabiltzen dituen Administrazio Publikoarena.



1. Administrazio Publikoa eta lehiaren araudira atxiki beharra

34. LDLren laugarren xedapen gehigarriak honako hau dio:

1. Lege honetan xedatutakoetarako, enpresatzat hartzen da jarduera ekonomiko bat egiten duen edozein pertsona edo erakunde, erakunde horren estatutu juridikoa eta finantzatzeko modua dena delakoa izanik ere. (...)

Horri buruz, Auzitegi Gorenak maiz nabarmendu du administrazio publikoak lehiaren defentsarako araudiaren mende daudela zeharo, eta, horrenbestez, eragile ekonomikoaren izaera dutela. Adibidez, Auzitegi Gorenaren 2007ko ekainaren 19ko epaiak (ECLI: ES:TS:2007:4763) honako hau adierazi zuen:

(...) administrazio publiko gisa diharduten administrazio publikoek lehia-eskubidearen gainean duten jardunari [dagokionez], esan behar da araudi horren mende daudela zeharo administraziook, eta ez dio kontrakoa Lehiaren Defentsarako Legearen 10. artikulua hitzez hitz hartuta, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak horixe argudiatu arren. Baiki, manu hori eragile ekonomikoei buruz ari denean, ez da ulertu behar manu horretan bertan zehaztutako zehapenetatik bat jaso dezaketen zuzenbide pribatuko eragileei buruz soilik ari denik, eta zuzenbide administratiboaren mende daudenak salbuesten direnik; izan ere, eragile ekonomiko deritza **merkatuan diharduen edozein subjekturi**, baita, beraz, administrazio, erakunde eta sozietate publikoei ere, nahiz eta horiek zuzenbide administratiboaren mende egon gutxiago edo gehiago.

Edo Auzitegi Gorenaren Epaia, 2013ko ekainaren 14koa (ECLI: ES:TS:2013:3139) honako hau adierazi zuen:

Aurreko horiek guztiek ez dute baliorik, ordea, **edozein administrazio publikoren jarduna imperium eskumenen arabera izan beharrean, merkatuan parte hartu eta, beste eragile batzuekin lehian, bere zerbitzuak eskaintzen dituen eragile ekonomikoarena denean**. Errekurtsua jarri duen udalak berak onartzen duen moduan, «Administrazioak gainerako eskubide-subjektuen, operadoreen edo eragileen jokabidea bezalakoa badu merkatuan, Lehiaren Defentsarako Legean jasotako debekuak bete beharko ditu, gainerakoek bezala». Azken ondorio hori guztiz zuzena ez dela esan badugu ere –izan ere, Administrazioak Lehiaren Defentsarako Legean xedatzen diren debekuak bete behar ditu, non eta bere ekintzak ez dauden berariaz babestuta lerrun bereko beste arau batean–, baliagarria da eztabaida errekurtsogileak darabiltzan terminoetara ekartzeko. Hala, hizpide dugun kasuan, kontua da ebaztea udala (...) ahalmen administratiboan arabera edo eragile ekonomiko gisa aritu zen.

Era berean, Auzitegi Gorenaren 2016ko uztailaren 18ko epaiak (ECLI: ES:TS:2016:3525) honako hau adierazi zuen:

(...) lehiaren zuzenbidearen esparruan, enpresaren kontzeptu zabal eta funtzional bat erabiltzen da; hala, **garrantzitsuena ez da jokabidea duen subjektuaren estatus juridiko eta ekonomikoa, baizik eta bere jokabideak merkatuaren lehian emaitza ekonomikoki kaltegarria edo mugatzailea eragitea edo eragiteko bidea ematea**. (...) Zalantzarik gabe, **kasu batzuetan, lehia-eskubidearen balizko urraketa hori modu formalean egindako administrazio-egintza bat denez, edo xedapen orokor bat, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak –edo, hala dagokienean, lehiaren defentsako eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako organoek– xedapena edo **egintza aurkaratu beharko du** administrazioarekiko**



auzien jurisdikzioan, 15/2007 Legearen 12.3 eta 13.2 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorririk. Lehiaren defentsako agintarien erreakzio-gaitasuna baina, ezin daiteke aurkaratze-bide horretara mugatu (...).

Aurrekoen zentzu berekoa da Auzitegi Gorenaren 2017ko uztailaren 27ko epaia (ES:TS:2017:3131).

35. Horrenbestez, administrazio publikoek merkatuan parte hartzen badute eta, gainerako eragileekin lehian, beren zerbitzuak eskaintzen dituzten eragile ekonomiko gisa jarduten badute, LDLren aplikazio-eremu subjektiboan sartzen dira, eta, hortaz, arau-hauste baten erantzule deklaratu daitezke.
36. Kontrara, administrazio publikoek beren eskuduntza publikoak baliatuz dihardutenean, lehia-arloko agintaritzek legitimazio aktiboa erabili behar dute – LDLren 13.2 artikulua eta, gurean, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.4 artikulua emandakoa – administrazio-egintzak edo erregelamendu-xedapenak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko, edo sustapen-lanak egin ditzakete aipatu administrazio horien aurrean, merkatuan lehia iraurazterea edo berrezartzera zuzendutako proposamenak aurkeztearen bitartez.
37. Hala, administrazio publikoek administrazio-arloko kontrataziorako ahalmenak baliatzen dituztenean interes orokorreko helburuak lortzeko beharrezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko, legez izendatuak dituzten funtzio publikoen esparruan jarduten dute, eta kontratuen legeriaren mende geratzen dira. Legeria horrek balizko lehia-murrizketaren aurrean erreakzionatzeko bere mekanismo propioak ditu, lehia-agintaritzen legitimazio aktiboaz gainera.
38. Hitz gutxitan esanda, LDLren urraketa egotz lekietan administrazio publikoei, baldin eta eskuduntza publiko horiek gainditzen badituzte lehiaren aurkako itun baten mesedetan⁶.
39. Aitzitik, Administrazioak legez esleitutako administrazio-ahalmenak baliatzen dituztenean eta horiek merkatuetako lehia mugatzen dutenean, lehia-agintaritzak auzitegietan aurkaratzeko bidea erabili beharko du.

⁶ LEA/AVC-ren Ebazpena, 7/2013 espedientea, Arabako Obra Publikoak.

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/eu_resoluci/Eusk%20RESOLUCION%20arabako%20lanak%20definitiva%20sin%20firmas.pdf .

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ebazpena, S/0167/09 espedientea, Jerezko mahats eta ardo ekoizleak.

https://www.cnmc.es/sites/default/files/86308_6.pdf



2. Jokabideen azterketa

40. Ikerketa Zuzendaritzak izapidetutako informazio erreserbatutik ondoriozta daitekeenez, Udalak arkitektura-zerbitzuen lizitazioak egin dituenean, Legeak (Kontratazio Publikoari buruzkoa) esleitutako ahalmen publikoak egikaritu ditu, eta ez du enpresa gisa jokatzeko lehia-araudiaren ondorioetarako. Horregatik, salaketaren informazioa eta Udalak emandakoa kontuan hartuta, ezin da kontratuen esleipenetatik kolusio-akordiorik ondorioztatu, eta, hortaz, ez dago ondorioztatzerik LDLren 1. artikulua urratu izanaren arrazoizko zantzurik dagoenik.

a. Debako hilerrri berrirako ideia-lehiaketa (1996)

41. 1995eko Kontratuen Legeak⁷ arautu zituen, 216. artikulua bitartez, epaimahai baten esku-hartzea zuten proiektuen lehiaketak. Lehiaketa horiek epaimahai baten parte-hartzea ezaugarri duten prozedurak dira; esan behar da, gainera, sariekin edo saririk gabe, batez ere lurralde-antolamenduaren, hirigintzaren, arkitekturaren, ingeniariaren eta datu-prozesamenduaren arloetako planak edo proiektuak egitea zutela xede.

Proiektu-lehiaketa baten irabazleari kontratua esleitzeko, erabili daiteke publizitate gabeko prozedura negoziatua, betiere lehiaketak aurrera jarraitzen duela esan nahi badu eta lehiaketaren baldintzetan aurreikusita baldin bazegoen.

42. Kasu honetan, Udalak ideia-lehiaketa baterako deialdia egin zuen 1996an, Deban hilerrri berri baten proiektuaren idazketa egiteko xedearekin. Aipatutako lehiaketa horretan adierazi zen, era berean, irabazleari esleituko zitzaiola, ondorenean, Debako hilerrri berriaren oinarrizko proiektua idaztea eta egikaritzea. Epaimahaia Udaleko Gobernu Batzordea zen.

43. Udalak bost profesional edo arkitektura-estudio gonbidatu zituen⁸. Lehiaketara aurkeztu ziren profesionalen artean, Udalak hiru finalista izendatu zituen: 1) XXX, 2) GAIN eta XXX, 3) YYY eta ZZZ.

Azkenik, Udalak, Gobernu Batzordean hartutako akordioaren indarrez, XXX arkitektoak aurkeztutako proiektua izendatzea erabaki zuen lehiaketaren irabazle, eta horren ondorioz, 1998an, Debako hilerrri berriaren oinarrizko proiektua idazteko eta egikaritzeko kontratua esleitu zion.

⁷ 13/1995 Legea, maiatzaren 18koa, Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzkoa. 1995eko maiatzaren 19ko BOE, 119. zk.

⁸ XXX, YYY; RRR; XXX, ZZZ eta Gain.



44. Kontratua esleitzeko orduan, 1995eko Kontratuen Legean jasotako aurretiazko prozedura berezi bati jarraitu zitzaion, hau da, proiektuen aldez aurreko lehiaketa deituari; Udalak, kontrataziorako organo gisa, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitu zion kontratua 1996ko ideia-lehiaketaren irabazleari, deialdian aurreikusita zegoen bezala.

b. Eraikuntza-proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzeko kontratua (1997)

45. 1996ko ideia-lehiaketa behin ebatzi zenean, Udalak Debako hilerri berriaren eraikuntzaren bideragarritasun ekonomikoa ebaluatzeko kontratua esleitu zion lehiaketaren irabazleari. Kontratuaren zenbatekoa 810.000 pezetakoa izan zen (BEZa barne), eta Udalak izapidetu zuen kontratu txiki modura, 1995eko Kontratuen Legeko 202. artikuluaekin bat etorririk.
46. Debako hilerri berria eraikitzea bideragarria zen aztertzeko kontratua, izatez, zerbitzu-kontratu bat zen, eta kontratu txiki gisa izapidetu ahal izateko, beharrezkoa zen zenbatekoa 2.000.000 pezetatik beherakoa izatea.
47. Horrela bada, Debako hilerri berria eraikitzea ekonomikoki bideragarria ote zen ebaluatzeko kontratuaren esleipena Administrazioak kontratazio-organon gisa hartutako erabakiaren bidez egin zen, orduan indarrean zegoen 1995eko Kontratuen Legearen 202. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta 1996ko ideia-lehiaketaren irabazleari esleitu zitzaion.

c. Hilerriaren kokapen berri baterako azterketa teknikoaren kontratua (2015)

48. 2015ean, Udalak txosten tekniko bat enkargatu zion XXX arkitektoari Debako hilerriak izan zezakeen kokapenari buruz. Kontratatuaren aurrekontua 2.400 eurokoa izan zen (BEZik gabe).
49. Esleipen hura Udalaren erabaki bat izan zen, Legez bereak zituen ahalmen publikoak erabiliz, 2011ko Kontratuen Legeko 111. eta 138.3 artikuluetan kontratu txikiei buruz xedatutakoaren arabera⁹

⁹ 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena. 2011ko azaroaren 16ko BOE, 276. zk.



d. Hilerri berriaren oinarrizko proiektua eta egikaritzea idazteko proiektua (2018)

50. 2007ko Arau Subsidiarioen TBk 8. SO gisa definitu zuen hilerri berria, Istiña aldean.

51. Hala eta guztiz ere, idatzi honetako 14. paragrafotik 20.era bitartean adierazi den bezala, Istiñako hilerri berria plangintza-arauetan txertatuta, ondorioz, administrazio-errekurtso eta/edo administrazioarekiko auzi-errekurtso mordo bat aurkeztu da, aipatutako hileta-instalazio hori Debako hirigintza-plangintzatik ezabatzea eskatzeko.

Istiñan hilerri berria ezartzen zuten Plangintza Arauen aurkako errekurtsoak behin ebazita geratu zirenean, Udala ez zen 1998ko proiektua egikaritzera iritsi, nahiz eta esandako hileta-instalazioa udal plangintzako arauetan jasota egon.

52. Udalak egiaztatu zuen, 2017an, hilerri berriak ase beharko zituen beharrianak errotik aldatu zirela 1998tik joandako denbora horretan. Halaxe da, hobiratze kopurua nabarmen apaldu zen ordutik eta, aldiz, errausketena ugaritu, eta horrek asko murrizten zuen espazio premia.

53. Horregatik, beste proiektu bat enkargatzea erabaki zuen Udalak. Hala, martxoaren 8ko Alkatetzaren 31/2018 Dekretuaren bidez, XXX arkitektoari enkargatu zitzaion Artzabalen hilerri berri bat eraikitze oinarrizko eta egikaritze proiektuak idatzi zitzan.

Esandako Dekretuak egun Arrillagan dagoen Debako hilerriaren kokalekua aldatu beharra adierazten zuen, eta kontratu txikiaren definizioa eman zion, 18.000 euroko zenbatekoarekin (BEZik gabe).

54. Salatzaileak adierazi du 2003ko eta 2018ko proiektuek helburu bera badute ere, bi proiektuak erabat independenteak direla, bai okupatutako azalerari, bai hobiratze kopuruari eta bai egikaritze-aurrekontuari dagokienez.

55. Aipatutako proiektuek oso bestelako hilerri tipologia definitzen dute.

2018ko proiektuaren memorian adierazten da **2003ko proiektua osorik berrikustea** bilatzen dela, orduan baino espazio gutxiago okupatzeko eta, ondorioz, lurperatze eta horma-hilobi kopuruak murriztu eta kolunbarioena handitzeko. Eta horrek eragina du proiektua egikaritzeko aurreikusitako aurrekontuan ere.

Aipatutako Memoriak hurrengo aurrekariok eta 2018ko proiektuaren justifikazioa jasotzen ditu:



«2003ko abenduaren 2an, EHAEO arkitekto elkargoak ikus-onetsi zituen Debako hilerri berriaren oinarritzko eta egikaritze proiektua, 1997ko ideia-lehiaketaren irabazleari emandako sariaren eta, gero, 1998an, egindako kontratuaren ondorioz.

Eraikuntza sektoreak, 2007an hasita, bizi izandako krisi larriak eraikitze-lanik gabeko parentesi bat ekarri zuen, eta horrek presioa kendu zion Arrillagako egungo hilerriari. Presio hori, ordea, berriro agertu da 1. sektoreak (Elizburu) hego-ekialdera izan duen hirigintza-garapen argiarekin eta Amillagaren jabetzak esparrua berrantolatze eta plangintza xehatua garatzeko eskatu ondoren.

Bestalde, inboluzio bat gertatu da ehorzketa-sisteman, eta laurogeita hamarreko hamarraldiko lurperatze edo panteoien sistematik (orduan % 100) errautsen kolunbarioetara aldatu da (2016an % 76), eta esan behar da igoera hori ez dela oraindik gorenera iritsi.

Horrek guztiak 2003ko proiektua berriro pentsatu beharra ekarri du. 2017ko uztailan, erakusketa publiko bat ireki zen Udaleko osoko bilkuren aretoan, eta, izandako bilakaerari buruzko azalpenak emateaz gainera, proposamen berriaren aurreproiektua aurkeztu zen, hemen garatu den hauxe bera».

Halaber, arkitekturaren ikuspuntutik ere justifikatzen du Memoriak:

«Ondorengo krisi ekonomikoak, egikaritze-kostuak doitu beharrak eta, batez ere, gizartearen errausketarako joera-aldaketa azkarrak, espazioan esku-hartze txikiagoa egitea dakarren neurrian, jatorrizko proiektuaren berrikuspen integrala egitera behartu dute».

56. 1998ko proiektuak espazioaren erabateko okupazioa begiesten zuen: 11.603 m². 2018ko proiektuak, aldiz, 4.800 m²-ko hasierako okupazioa aurreikusten du, azalera osoaren % 41. Gainerakoa erreserban geratzen da etorkizuneko beharrezararako.

57. Hilerri berriko hileta-instalazio motei dagokienez, berriz, 2018ko proiektuan, ondorengo hauek aurreikusten dira:

- 7 modulu 63 horma-hilobirekin (% 13)
- 7 modulu 42 lurperatzerekin (% 8,9)
- 73 modulu 438 kolunbariorekin (% 78,4)
- Hezurtegia eta hobi erkidea

Baina 2003ko proiektuak hauek aurreikusten zituen:

- 72 horma-hilobi
- 36 hezurtegi
- 46 gordailu lurperatze-errautsentsat:
- 522 lurperatze-plaza

58. Azkenik, aurreikusitako egikaritze materialeko aurrekontuak ere desberdinak ziren:

- 2003ko proiektua: Kontrata bidezko egikaritze-aurrekontua: 3.656.459,10 euro. (BEZ gabe)



- 2018ko proiektua: Egikaritze-aurrekontua: 1.773.738,74 euro (BEZ gabe)

- 59.** 2018ko proiektuari dagokion kontratua, izatez, zerbitzu-kontratu bat da, 18.000 euroko zenbatekoarekin (BEZik gabe). Kontratuaren zenbatekoa Udalak zehaztu zuen, arkitektoak aurkeztutako lan-eskaintzaren arabera, zeinari esleituko baitzizaion gero.

Zerbitzu profesionalen eskaintza horri dagokionez, ordainsariak askatasunez hartu beharrekoak dira, eta ez dago ezartzerik kasuan kasuko elkargo profesionalaren gutxieneko edo gutxi gorabeherako ordainsarien arabera, otsailaren 13ko 2/1974 Legeak, elkargo profesionaleri buruzkoak, debekatu egiten baititu halakoak 14. artikuluan¹⁰.

- 60.** Esandako kontratuaren esleipena Administrazioaren erabakia izan da, 2011ko Kontratuen Legearen testu bategineko 111. eta 138.3 artikuluetan kontratu txikietarako xedatutakoaren arabera.

e. Agirre jauregiko obrekin lotura duten proiektua eta zuzendaritza fakultatiboa (2006)

- 61.** Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren erabakiak adierazten du Udalak arkitekto bati enkargatu ziola Agirre jauregiko obrekin lotutako proiektuak idaztea eta lanen zuzendaritza fakultatiboa, beste profesional batzuekin sinatuta zuen kontratua deuseztatu ondoren. Enkargu horren ondorioz, profesionalak hainbat fakturazio egin zituen esandako kontzeptu horiengatik: 2007an (93.000,00 euro), 2008an (42.000,00 euro) eta 2009an (74.000,00 euro). HKEEk adierazi du aipatutako enkargu hori kontratazio publikoaren araudiak ezarritako prozeduretatik kanpo egin zela.

Bestalde, Udalak HKEEri alegatu zion enkargu hori Agirre jauregiko proiektuak egiteko eta zuzendaritza fakultatiborako zerbitzuen aurretiazko kontratua bi aldean adostasunez eten ondoren egin zela eta gastua alde aurretik baimenduta zegoela.

- 62.** Ildo horretan, Udalak kontratazio-ahalmen publikoak baliatu bide zituen, nahiz eta –Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arabera–, kontratu publikoen legeak horretarako ezartzen dituen prozedurak alde batera utzita egin izan.

¹⁰ Profesionalen Elkargoei buruzko Legearen 14. artikulua galarazi egiten ditu lanbide-ordainsariei buruzko gomendioak. Zehazki adierazten du elkargo profesionalak ezin izango dutela laneko ordainsarien inguruko baremo orientagarririk ezarri, ez eta bestelako orientazio, gomendio, jarraibide, arau edo erregelarik ere.



3. Ondorioa

- 63.** Espedientean aurreko kontratuei buruz dauden datuak aztertu ostean, eta Lehiaren Defentsarako Legearen ikuspuntu hertsitik, LEK honek irizten dio Udalak Kontratuen Legeak ematen dizkion administrazio-ahalmenak baliatzen dituela kontratu horiek esleitzeko orduan, eta, beraz, ez dela eragile ekonomiko gisa hartu behar. Beraz, egindako esleipen horietatik ez dago ondorioztatzerik inolako kolusio-akordiorik egon denik LDLren 1. artikuluan jasotakoaren arabera.
- 64.** Horregatik guztiagatik, salatutako jokabideei dagokienez, Ikerketa Zerbitzuak, informazio erreserbatuko fase bat aurrera eraman ondoren, LEK honi proposatu dio ez dezala abian jarri zehapen-prozedurarik eta artxibatu ditzala informazio erreserbatu horren esparruan egindako eta izapidetutako jarduketak, ez baitu ondorioztatzen lehiaren defentsaren arloko araudia urratu izanaren zantzurik dagoenik.
- 65.** LEK hau bat dator IZren proposamenarekin, azaldutako kontsiderazio juridikoen arabera.

4. Ebazpena emateko eskumena duen organoa

- 66.** LDLren 49.3. artikuluan xedatu denez, MLBNko Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzaren proposamenez, lege horren 1., 2. eta 3. artikuluetan debekaturiko jokabideak ustez egon direlako prozedurak ez hastea erabaki dezake, baita horien jarduerak artxibatzea ere, baldin eta irizten badio ez dagoela legea urratu delako zantzurik.
- 67.** Lehia Defendatzeko Erregelamenduak (LDE) –otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren bidez onartu zen– 25. artikuluan ezartzen du salaketa jarri izana ez dela loteslea eta ez duela behartzen Ikerketa Zuzendaritza zehapen-prozedura abian jartzera. Prozedura ez irekitzeko erabakia salatzaileari komunikatu beharko zaio, eta azaldu zergatik ez den bidezko prozedura irekitzea.

V. EBAZTEN DU

BAKARRA.- Zehapen-prozedurarik ez hastea eta erreferentziako salaketaren harira egin eta izapidetu diren jarduketak artxibatzea, ez delako egiaztatu Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legearen urraketaren baten zantzurik



dagoenik. Azaldutako horren guztiaren ondorioz, beraz, ez dagokio inolako erabakirik hartzerik eskatutako kautela-neurriari buruz.